

# JOKANO

— ARABA / ÁLAVA —

Jokano Arkamu mendilerroaren iparreko isurialdean dago, Arkamu eta Gibijo mendilerroek eratzen duten lur goratu eta irregularraren hasieran, eta Tetxako haitzartarekin zuzenean lotuta, Aprikaren bidez. Herriak oso kokagune estrategikoa du, eta Kuartangoko populatze eta komunikazioetan berebizikoak izan diren bi ardatzen lotune izan da: Arrianotik hasita Vadillo ibaiaren ibilguari jarraituz jaisten den haranaren ekialdeko ahoan, Kuartango iparretik hegora zeharkatzen duen bidera iritsi arte. Eta kokagune horri zor dio Jokanok garai batean izandako oparotasuna.

Kuartangoko udalerriaren barruan dago, Añanako kuadrillan, eta Gasteiztik 23 km-ra. Jokanora heltzeko, Arabako hiriburua Armentiako gainetik utziko dugu, eta N-I errepidetik jarraituko dugu, Langraiz Oka-Los Llanosera heldu arte. Gero, hor, A-2622 errepidea hartuko dugu, eta, eskuniera eginda, A-3314tik jarraituko dugu, azkenean A-3316 bidea hartuta herriraino heltzeko.

Arkamu mendilerroko hegalean dagoen haitzulo batean, Lakozmendiko Solacueva izeneko eremuan, gizakia antzina paraje hauetan ibili zela egiaztatzen duten mila urtetik gorako arrastoak agertu dira. Haitzulo horretan, zeramika, metal, hezur eta landareen aurkikuntza arkeologiko ai-pagarriak ez ezik, Julio eta Juan Antonio Arbosa, 1960an, pintura garrantzitsu batzuk aurkitu zituzten: Brontze Aroaren amaierakoak diren pinturak. Haitzulo horretan bertan, gainera, inguru hauetan erramatarrak egon zirela baieztagaten duten arrastoak ere agertu dira; zehatzago esanda, IV. mendeko urrezko berrogeita zortzi txanpon aurkitu dira, baita garai hartako zeramika ere.

Beste alde batetik, 1997 herriraino ura ekartzeko Jokano eta Sendadiano artean egin ziren lan batzueta, aztarna erromatar ugari aurkitu ziren. Aurkikuntza horretatik abiatuta, hainbat urtetan indusketa- eta ikerketa-kanpainak egin dira. Aztarnategi arkeologikoak erakusten duenez, lur horietan kanpamendu erromatar bat egon zen eta eraso egin zioten; hori dela eta, bertakoena eta legionario erromatarren arteko borrokaren arrastoak geratu dira inguruan. Guda hori K.a. 40. eta 30. urte bitartean kokatu da, han aurkitu diren

Jokano se encuentra en la vertiente septentrional de la Sierra de Arkamo, en los primeros compases del ascendente e irregular terreno que conforman las sierras de Arkamo y Gibijo, y en comunicación directa con el Portillo de Tech a través de Aprikan. La localidad se emplaza en posición estratégica, como punto de enlace de dos ejes vitales en el poblamiento y en las comunicaciones de Kuartango: en la boca oriental del valle que desde Arriano baja por el curso del río Vadillo hasta alcanzar el camino que de Norte a Sur atraviesa Kuartango. A su privilegiada ubicación debe Jokano parte de su pasada prosperidad.

Perteneciente al municipio de Kuartango y a la cuadrilla de Añana, dista unos 23 km de Vitoria-Gasteiz. Se llega a la localidad abandonando la capital alavesa por el Alto de Armentia y continuando por la N-I, carretera que se deja en la salida Nanclares de la Oca-Los Llanos. Se sigue por la A-2622 para tomar, a la derecha, la A-3314 y, desde aquí, la carretera A-3316 por la que se accede al pueblo.

En una gruta situada en la ladera de la sierra de Arkamo, al suroeste de Jokano, en el término denominado Solacueva de Lakozmonte, quedan restos milenarios que confirman la antigua presencia del hombre en estos parajes. En esta cueva, además de otros interesantes hallazgos arqueológicos tanto de cerámica, metal, como de restos óseos y vegetales, fueron descubiertas por Julio y Juan Antonio Arbosa en 1960, unas importantes pinturas fechadas hacia los momentos finales de la Edad del Bronce. En esta misma cueva se descubrieron, además, testimonios de la presencia romana; en concreto se hallaron cuarenta y ocho monedas del siglo IV, aparte de cerámica de la misma época.

Por otro lado la realización de unas obras, efectuadas en 1997, para la traída de aguas en la zona hizo aflorar en Andagostes, entre Jokano y Sendadiano, diversos restos romanos. Partiendo de este hallazgo, se han sucedido durante varias campañas labores de excavación y estudio. El yacimiento arqueológico testimonia la ocupación de dicho territorio por un campamento romano que fue objeto de un ataque, por lo cual en la zo-

material eta txanpon motek horrela adierazten dute eta.

Erdi Aroko hainbat dokumentuk aipatzen dute Jokano, hango San Martin parroquia eta inguruko beste tenplu batzuk. *Jocano* izenez ageri da Jerónimo Aznarrek 1257an idatzitako konkordia-gutunean, Kalagorriko Kabildoari hamarren laurdenak ordaintzen zizkioten herrien artean aipatuta.

Erdi Aroan, Arazuela Dorretxe (gaur egun ez dago) jauntxoek inguru hartako igarobidea kontrolatzen zuten. Hala aipatzen da, esaterako, 1374an Iñigo Ortiz de Jocano jaunak Haranari dorrearen mugarría berrikusteko eskatu ziola dioen datuan. Gainera, jauntxo horren testamentuan –1396ko martxoaren 6ko– beste eliza bat eta harri buruzko datu interesgarriak aipatzen dira: San Martin tenplu txikia, “dorretxearen patronatua eta Artazuelako barruti biribila”, Jokanotik gertu da goena. Don Iñigok Jokanoko elizan lur emateko agindua utzi zuen, eta haren oinordekoek ospatzatela “hogeita hamar meza nire arimaren eta nire defuntuen alde”. Micaela Portillak Jokano ipar-mendebaldean kokatzen du Artazuelako dorrea, Vadillo errekatik, Rinconada amildegia jarraitzen dion bidetik dagoen mendiaren sarreran.

1483an Erdi Aroko beste monasterio bat edo tenplu txiki bat ageri da dokumentaturik; hori ere laikoen patronatua, San Bizenteri eskainitakoa, eta geroago, Jokanoko parrokiaren baseliza erantsia izan zena. Urte hartan, babesak lortzeko lehian aritu ziren Rodrigo Ortiz de Urbina, Martiodako dorreko alkaidea, eta Pedro Sánchez de Guinea, Covarrubiasko kalonjea, 1484ko udalbatzan epaia alkaidearen aldekoa izan zen.

Gil Lizentziatuak emandako informazioaren arabera, 1556. urteko bisita pastoralen, Jokanoko eliza haraneko oparoonetakoa zen, lau elizgizon mantentzeko adina baliabide zituen, hiru onura osoarekin eta bat, onura erdiarekin. Horrez gainera, lau baseliza zituen: lehenago aipatu ditugun Artazuelako San Martin eta San Bizente, eta San Sebastian eta Santiago. Aipatzekoa da, San Martinek eta San Bizentek euren hamarrenak ematen zituztela, eta hamarren horiek Juan de Álava eramatzen zituela, baseliza horien jabeak.

na han quedado los vestigios de una batalla entre indígenas y legionarios romanos. La datación de dicho evento se sitúa entre los años 40 y 30 a.C., puesto que el tipo de materiales y las monedas que se encontraron así lo atestiguan.

Son varios los documentos medievales que se refieren a Jokano, a su parroquia de San Martín y a otros templos de sus términos. Con el nombre de *Jocano* aparece en la carta de concordia del obispo Jerónimo Aznar, fechada en 1257, sobre los pueblos cuyas iglesias parroquiales contribuyen con sus cuartos decimales al Cabildo de Calahorra.

En la época medieval los señores de la Casa-Torre de Artazuela, hoy desaparecida, controlaban el paso por la zona, tal como atestigua el dato que señala como en 1374 su señor, Iñigo Ortiz de Jocano, solicitaba a la justicia del Valle una revisión mojonera de la torre. Además, el testamento de dicho señor, fechado el 6 de marzo de 1396, aportaba datos interesantes sobre otra iglesia: el pequeño templo de San Martín, patronato de “la casa torre y término redondo de Artazuela”, próximo a Jokano. Don Iñigo ordenaba que se le enterrase en la iglesia de Jokano y que sus herederos celebrasen “treinta misas por mi ánima y mis difuntos”. Micaela Portilla sitúa la torre y divisa de Artazuela al noroeste de Jokano, a la entrada del monte desde el camino que, por el arroyo Vadillo, sigue el barranco de la Rinconada.

En 1483 se documenta otro monasterio o pequeño templo medieval, también patronato de laicos, dedicado a San Vicente, que más tarde sería ermita aneja a la parroquia de Jokano. En dicho año se disputaban el patronazgo Rodrigo Ortiz de Urbina, alcaide de la torre de Martioda, y Pedro Sánchez de Guinea, canónigo de Covarrubias, en un pleno sentenciado en 1484 a favor del alcaide.

Según la información aportada por el licenciado Gil, en su visita pastoral del año 1556, la iglesia de Jokano era una de las mejores dotadas del valle, con recursos suficientes para mantener a cuatro clérigos, tres de ración entera y uno de media. Registraba, además, la existencia de cuatro ermitas: las ya mencionadas de San Martín de Artazuela y San Vicente, y las de San Sebastián y Santiago. Señalando que las de San Martín y San Vicente diezmaban por sí y llevaba sus diezmos Juan de Álava, patrón de dichas ermitas.

## San Martin eliza / Iglesia de San Martín


**A**RABAKO HERRI askotan gertatzen den antzera, elizak leku aipagarria hartzen du lur irregularrean ezarrita dagoen etxe multzoaren erdian. Eta etxadia bilduta badago ere, ekonomia nekazariaren unitateak ondo bereizita daude. Tenplua zaharberritzen ari dira gaur egun. XIII. mendean altxatu zen eraikina da, inertziak erromanikoa izeneko garaian. Oinplano angeluzuzena du, burualde zuzena eta nabe bakarra, baina, denborak aurrera egin ahala, hainbat eratako gorputzak erantsi izan zaizkio.

Tenpluak, kanpoaldean, Erdi Aroko aztarna interesgarriak gorde ditu. Esaterako, tenpluaren teilitu-hegalaren azpian hainbat garaitako harburuen ilarak daude. Burualdeko ipar-hegaleko harburuak tenplua eraiki zen unekoak direla esan daiteke; baina albokoetako kaperatakoak XVI. mendekoak ere izan daitezke. Hego-horman, oraingo zaharberritzera arte, harburu guztiak lisoak eta profil ahurrekoak ziren. Baina aipaturiko konponketa hauetan apaiztearen erantsia kendu denean, beste bost harburu agertu dira nabarearen azken zatian. Horietako lau lisoak eta ahurrekak dira; baina ikuslearen begietara ezkerretik bosgarrena ageri den harburuan, emakumezko baten burua dago adie-

**C**OMO ES HABITUAL en buena parte de los pueblos alaveses, la iglesia ocupa lugar destacado dentro de un caserío asentado en terreno irregular, estando todo él concentrado, aunque separadas entre sí las distintas unidades de economía labriega. El templo, actualmente en proceso de restauración, es un edificio construido en el siglo XIII, dentro del denominado románico de inercia. Es de planta rectangular, formada por cabecera recta y una sola nave a la que, con el paso del tiempo, se le han ido agregando diferentes cuerpos.

El exterior del templo conserva interesantes restos medievales. Así, bajo el alero del templo quedan varias hileras de canes de distintos momentos. Los canecillos del flanco norte de la cabecera podrían fecharse en el momento de la construcción del templo, mientras que los de las capillas laterales podrían datarse ya en el siglo XVI. En el muro sur, hasta el momento de la actual restauración, todos los canes eran lisos y de perfil convexo. Sin embargo, la eliminación del añadido de la casa cural, llevado a cabo en las actuales y referidas obras, ha sacado a la luz una hilera de cinco canecillos más, en el tramo final de la nave.

Oinplanoa / Planta





Mendebaldeko altxaera / Alzado oeste

razita: begi handiak eta almendra itxurakoak ditu, ahoa hustuta eta burukoa kokospean lotuta.

Burualde lauan, erdiko ardatz berean gainjarrita, bi bao daude. Goian dagoena erdi-puntuko arkua duen saitera itsua da. Eskuinera, hastialeko harlangaitzean sartuta, xake-apaindurak dituen harri bat dago. Deskribatu dugun horren azpian dago leihate nagusia; oso bao estua du, eta, ziur aski, erretaula nagusia jarri zutenean hormatu zuten. Itxura erdizirkularreko hiru arkibolatza alakatu ditu –eta barnekoa apur-apur bat zorroztuta dago–; deskarga-arku batetik burutzen ditu, eta horrek ere ez du apaindurak, baoko gainerako elementuen antzera. Arkua arkibolten antzera alakatuta dauden janba batzuetan zurkaiztuta dago; bola txiki batzuk dituzte goiko aldean, baita inposta lisoko angeluek ere.

Tenplura sartzeko portada XII. mendearen amaierako edo XIII. mendearen hasierako eredu ona da. Arku zorroztu samarra du, eta hiru arkibolatza eta xake-apaindurako deskarga-arku bat ditu. Lehenengo eta bigarren arkibolatza baketoi fin eta liso batekin dute ertza molduratuta. Hirugarrena alakatua da, eta alakaren gainazalean trazu bikotzeko erronbodun greka du, eta barrualdea motibo desberdiniek apainduta: gurutzeak, loreak, botoiak eta koadrifolioak. Bigarren arkiboltaren giltzak zortzi petaloko

Cuatro de ellos son lisos y convexos, mientras que en el quinto, empezando por la por la izquierda del espectador, se representa una cabeza femenina de grandes y saltones ojos almendrados, boca vaciada y tocado con barbuejo.

En la plana cabecera se abren dos vanos superpuestos en el mismo eje central. El situado en la parte superior es una saetera cegada que remata en arco de medio punto. A su derecha, inserta en la mampostería del hastial, es visible una piedra con decoración de ajedrezado. El ventanal principal, situado debajo del descrito, posee un vano muy estrecho, tapiado seguramente al colocar el retablo mayor. Consta de tres arquivoltas biseladas de configuración semicircular –con un levísimo apuntamiento la arquivolta interior– coronadas por sobrearco que, como el resto de los elementos del vano, carece de ornamentación. El arco efectúa su apeo en las jambas, biseladas como las arquivoltas, que muestran pequeñas bolas en la parte superior, lo mismo que los ángulos de la imposta, también lisa.

La portada de ingreso al templo es un buen ejemplar de finales del siglo XII o comienzos del XIII. Consta de arco ligeramente apuntado, formado por tres arquivoltas y sobrearco con decoración de ajedrezado. Las arquivoltas primera y segunda molduran su arista en un fino baquetón liso. La tercera, biselada, decora la superficie del bisel con


erroseta geométrico bat du, hirugarrenak, berriz, gurutze hankadun bat bi zirkulutan barneratuta. Arkua bi pilastraren gainera dator, eta pilastra horiek argi-baoa mugatzen dute. Alde bakoitzera bi zutabe dituzte, fuste monolítiko eta zilíndrikoak; eta horien gainean kapitelak, apaïnduragaiak bikoteka jarrita. Horrela, bada, portadaren eskunera dagoen barne-kapitelak giza aurpegi handia du, eta hori babesten, ezkutuak dituzten bi gerlariarekin ageri dira. Portadaren ezkerrean dagoen kapitelean, bestetik, begi bi-ribil handiko maskaroi bat dago irudikatuta, iletzat sugeak ditu, eta ahoaren alboetik beste bi suge irteten zaizkio; azken horiek luzeak dira, eta zutabearren fustean kiribilduta daude, astragalo hirukoitz baten modura. Horrez gainera, ebakien bidez apaïndutako ezkutuak dituzten bi animalia azaltzen dira alboetan. Bi kanpo-kapitelak akanto estilitzatuen friso bikoitzetan daude apaïnduta. Portadaren eskuinean dagoenak puntuak ditu zizelkatuta; ezkerrekoan,

una greca de rombos, de doble trazo, unidos por sus vértices y cuyos interiores se ornamentan con diferentes motivos: cruces, flores, botones y cuadrifolios. La clave de la segunda arquivolta se decora con una roseta geométrica de ocho pétalos, mientras que la tercera lo hace con una cruz patada enmarcada en doble círculo. Se apea el arco en dos pilastras, que limitan el vano de luz, flanqueadas por dos columnas a cada lado de monolíticos y cilíndricos fustes. Sobre éstos asientan los capiteles, que presentan temáticas decorativas emparejadas. De este modo, el capitel interior, situado a la derecha de la portada, muestra un gran rostro humano, escoltado por dos guerreros con escudos. En el situado a la izquierda de la portada se representa un mascarón de grandes ojos redondos, con serpientes como cabellos y dos serpientes que surgen a ambos lados de la boca y se prolongan enrollándose en el fuste de la columna, a modo de triple astrágalo, estando además flanqueado por

*Portadako xebetasuna / Detalle de la portada*



*Burualdeko leiboa / Ventana de la cabecera*





Portadako xebetasuna

Detalle de la portada

ostera, akantoen ilara bikoitzaren gainean, burutxo bat eta erroseta bat ageri dira, batetik, eta etzanda dagoen gizon baten irudia, bestetik.

Barruan, nabeak bi zati eta presbiterioa ditu, eta kanoi-ganga zorrotz batek estaltzen du. Bi parpain-arkuek (horiek ere zorrotzak eta tolestu gabeak), alboko kaperak zabaldu zirenean, galdu egin zituzten Erdi Aroko zurkaitzak; bi XVI. mendekoak, presbiterioan, eta beste bi, na-bean. Burualdeko leihatea, lehen kanpotik deskribatu duguna, ez da barrutik ikusten, erretauila nagusiaren atzean gordeta dago eta.

Testua eta argazkiak: MPG - Planoak: LGT

dos animales que llevan escudos con decoración incisa. Los dos capiteles exteriores se decoran con doble friso de acantos estilizados. El situado en el lado derecho de la portada, con puntos tallados a trépano, mientras que en el del lado izquierdo aparece sobre la doble fila de acantos, por un lado, una cabecita y una roseta, y por el otro la figura tumbada de un hombre.

En el interior, la nave, formada por dos tramos y presbiterio, se cubre con bóveda de cañón apuntado. Los dos arcos fajones, también apuntados y sin doblar, han perdido los apeos medievales al abrir las capillas laterales, dos del siglo XVI en el presbiterio, y otras dos en la nave. El ventanal de la cabecera, descrito en el exterior, no es visible por el interior al estar oculto por el retablo mayor.

Texto y fotos: MPG - Planos: LGT

#### Bibliografía / Bibliografía

LÓPEZ DE GUERENÚ, G., 1962, p. 370; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1987, p. 16; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1995, pp. 567-569, fig. 5-6, 276-279.